Espediente zk: 2025-060700

Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 Agendako eta Nazioarteko Gaietako Saila

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

Helburua: "*Darabilbo aisialdi agenda"* eta "Mintzapraktika taldeak"

EGILEAK:

Euskara Teknikaria: David Rosales Reguera

Euskarako AOT: Iratxe Enderika del Villar

Ontzat emana:

Euskarako zuzendaria: Mari Jose Arrieta Sagarna

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

***"Darabilbo aisialdi agenda " eta "Mintzapraktika taldeak"* izeneko programak herritarrei eskaintzeko zerbitzu-kontratuaren preskripzio teknikoen pleguak.**

Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritzaren misioa da euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea hiriko espazio guztietan, bilbotarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen presentzia indartzeko. Horretarako, besteak beste, herritarrek euskara modu naturalean erabiltzeko aukerak ugaritzea du helburu.

Bilboko Udalaren AROA Plan Estrategikoaren barruan (2025-2035) identifikatutako beharrei erantzuteko asmoa du kontratu honek. Taula honetan adierazten da kontratatu nahi diren prestazioek zein kokapen duten AROA Planaren ardatz estrategiko, erronka, lan-ildo, ekimen eta ekintzetan:

2. ardatz estrategikoa: Jarrerak / Motibazioa
Erronka: JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.
Lan-ildoa: JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.
Ekimena: JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu. • Ekintza: Euskara elkarteek eta bestelako elkarteek euskara sustatzeko antolatzen dituzten jarduerak babestu.

3. ardatz estrategikoa: Ezagutza / Gaitasuna
Erronka: EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
Lan-ildoa: EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
Ekimena: EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren araberako eskaintzak sortu. • Ekintza: Euskaltegitik kanpo mintzamena lantzeko dinamikak antolatu.

4. ardatz estrategikoa: Erabilera / Elkarreragina
Erronka: EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.
Lan-ildoa: EE.1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.
Ekimena: EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

• Ekintza: Aisialdiko programazioa antolatzen duten Udaleko beste sailekin lankidetzan, euskararen eskaintza eta erabilera areagotzeko estrategiak landu. • Ekintza: Euskarazko aisialdiaren agenda osatu eta komunikatu.
Ekimena: EE.1.1.8. Euskarazko kultura produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko. • Ekintza: Euskarazko kultur jardueren hartzaile kopurua areagotzeko estrategiak martxan jarri.

Datu soziolinguistikoak aintzat hartuta, Bilbon lagun asko daude, termino absolutuetan, euskaraz dakitenak edo ulertzeko gauza direnak. Horiexek dira, hain zuzen ere, kontratu honetako prestazioen hartzaile potentzialak: 151.477 biztanle.

Izan ere, 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 330.956 pertsona bizi dira Bilbon. Horietatik, 98.805 pertsona (% 29,9) euskaldunak dira. Eta 52.672 pertsona (% 15,9) euskaldun hartzaileak dira.

KONTRATUAREN ZERTARAKOA ETA HELBURUAK

Kontratu honen helburua da, batetik, herritarrei zuzendutako zenbait jardueraren bidez Bilboko euskarazko aisialdia garatzeko eta sustatzeko laguntza teknikoa ematea; eta, bestetik, Bilbon euskara praktikatzeko mintzapraktika-taldeak antolatzea, talde-dinamika informalaren bidez.

Kontratu honen bidez, euskararen erabilera areagotzeko baliagarriak diren bi programa hauek abian jarri nahi dira: "*Darabilbo aisialdi agenda"*, eta "*Mintzapraktika-taldeak".*

Programa hauen bidez, Bilboko Udalak goian aipatutako AROA Plan Estrategikoko helburuak bete nahi ditu. Kontratu honek bi lote ditu:

1. **LOTEA: DARABILBO AISIALDI AGENDA.-** Euskarazko aisialdiko jarduerak antolatu eta eskainiko ditu hilero.
2. **LOTEA: MINTZAPRAKTIKA-TALDEAK.** Euskaraz hitz egin nahi duen jendea taldeetan elkartzeko aukera emango du.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

1. LOTEA: *DARABILBO AISIALDI AGENDA*

1.- XEDEA

Lote honen xedea da Bilbon euskarazko aisialdiko jarduerak antolatzea eta eskaintzea hilero.

Aisialdiko jarduera gisa ulertuko dira, besteak beste, kultur ekintzak, tailerrak, kirol ekintzak, irteerak, hitzaldiak, ikastaroak, bisitaldiak, ekintza gastronomikoak, zientziaren dibulgazio-ekintzak, ibilbide tematikoak hirian zehar, familia ekintzak, eskulanak edo beste era bateko ekimenak.

2.- ZEREGINAK

Hauek izango dira enpresa esleipendunaren lan ildoak eta eginkizunak:

- Aisialdi eskaintza ahalik eta zabalena prestatzea: kultur ekintzak, tailerrak, kirol ekintzak, irteerak, hitzaldiak, ikastaroak, bisitaldiak, ekintza gastronomikoak, zientziaren dibulgazio-ekintzak, ibilbide tematikoak hirian zehar, familia ekintzak, eskulanak edo beste era bateko ekimenak planifikatzea.
- Ekintza kopurua: gutxienez 75 jarduera antolatuko dira irailaren erditik ekainaren amaierara arte.
- Bilboko barruti guztietan antolatuko dira ekintzak, eskaintza sakabanatua izateko.
- Maiztasuna: hilero, aisialdi agenda bat osatuko da. Uztailaren 1etik irailaren erdialdera ez da ekintzarik antolatuko.
- Hartzaileak: publiko euskaldun eta euskaldun hartzaileari zuzendutako ekintzak izango dira. Ekintzaz ekintza zehaztuko da parte-hartzaileen xede taldea zein den, adinaren, zaletasunen eta bestelako ezaugarrien arabera.
- Programaren marka berritzea:
  - ✓ Programaren markan izena (“Darabilbo”) eta leloa (“Bilbon aisialdia euskaraz”) agertuko dira.
  - ✓ Programaren logoa berrituko da, logo bakarra sortuko da eta euskarri guztietan txertatuko da, Udalaren logoarekin batera.
- Programaren web ataria eta sare sozialak sortzea eta kudeatzea:

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

- ✓ Web atariak aisialdi agenda osatuko duten jarduerei buruzko informazio guztia bilduko du modu argi eta erakargarrian, jasotzaileen adinen eta ezaugarrien arabera.
- ✓ Web atarian, modu argian eta ondo ikusteko eran agertuko da Bilboko Udalaren logoa. Euskarako Zuzendaritzak bere gain hartuko du, behar bezala justifikatuta, bertan beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko ahalmena.
- ✓ Web atariaren bidez kudeatuko da ekintzetan parte hartu nahi duten herritarren izen-ematea.
- ✓ Web atarian iradokizunen buzoi bat sortzea, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko.
- ✓ Sare sozialak sortu eta kudeatuko dira.

- Programa kudeatzeko telefono zenbaki bat eta helbide elektroniko bat eskuragarri izatea.
- Izen-emateak kudeatzea:
  - ✓ Herritarrek aukera izango dute ekintzetan izena emateko, online formulario baten bidez.
  - ✓ Plaza mugatuko ekintzak direnean, hala adieraziko da online formularioan, eta izena eman duten guztien artean zozketa egingo da. Ondoren, zozketan izan diren herritarrei zein Euskarako Zuzendaritzari zozketaren berri emango zaie.
- Marketina, publizitatea eta komunikazioa:
  - ✓ Programan interesa duen edonorentzat eta parte-hartzaileentzat programaren gaineko informazioa prestatzea.
  - ✓ Programan izena emateko sortutako web atariko eta sare sozialetako informazioa eguneratzea.
  - ✓ Aisialdi agendan parte hartu nahi dutenek izena eman ahal izateko publizitate kanpainak diseinatzea eta garatzea.
  - ✓ Harpidetza-sistema bat sortzea agenda jaso nahi duten herritarrentzat.
- Udalaren zehar lerroak kontuan hartzea ekintzak diseinatu eta antolatzerakoan: genero-berdintasuna, irisgarritasuna, osasuna eta jasangarritasuna, besteak beste.
- Ekainean, ikasturteko parte-hartzaileei asebetetze-inkestak bidaltzea, Udalarekin adostutako edukiarekin, eta asebetetze-inkesten datuak aztertzea.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

3.- KONTRATUA EGIKARITZEKO IZENDATUTAKO LAN-TALDEA

Enpresa esleipendunak lantaldea izendatu beharko du kontratua egikaritzeko, eta honako profil profesionala izan beharko du:

PROFIL PROFESIONALEN TAULA			
Kontratuan duen erantzukizuna (eginkizunak)	**Eskatzen diren titulazioa / ikasketak**	**Eskatzen den gutxieneko esperientzia**	**Hizkuntzak**
Koordinatzailea	MECESeko 1. maila	1 urte euskararen alorreko egitasmoetan irakasle, dinamizatzaile edo/eta antolatzaile	Euskarako C1 maila

Baldintza horiek betetzen direla eskaintzak baloratu aurretik egiaztatuko da.

Kontratua gauzatzeko izendatutako lantaldeak bere horretan iraun beharko du kontratuak irauten duen artean:

- Eskaintzan zehaztutako balioen arabera eskainitako langilearen ezagutza teknikoen maila eta lanak gauzatzean erakutsitako ezagutza errealak bat ez badatoz, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuko zaio esleipendunari.
- Arduradunaren lanen produktibitatearen eta kalitatearen balorazioa desegokitzat jotzen bada, edo zerbitzua behar bezala gauzatzearekin lotutako gorabeherarik gertatzen bada, esleipendunari jakinaraziko zaio, zuzentzeko neurriak har ditzan.
- Enpresa esleipendunak eskaintzan izendatutako arduraduna aldatzea proposatzen badu, idatziz jakinaraziko du 15 egun lehenago, egindako aldaketak azalduz eta ordezkapenerako atxikiko dituen profil baliokideko datuak erantsiz.

Kontratistak kontratua gauzatzeko jarritako giza baliabideak esleipendunaren zuzendaritzaren eta antolaketaren mende egongo dira, legez ezarritako esparru eta ordena orotan; beraz, esleipenduna izango da langile horren arduradun bakarra, eta, beraz, ez dute izango inolako lotura juridiko-laboralik Bilboko Udalarekin. Hori guztia dagokion kontratuaren betearazpenaren kontrola alde batera utzita.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Klausula horretan aurreikusitakoa eta eskaintzan giza taldeari buruz jasotako konpromisoak betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, kontratistak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

4.- BITARIKO BATZORDEA: PROGRAMAREN JARRAIPENA

Enpresa esleipendunaren eta Euskarako Zuzendaritzaren arteko ezinbesteko koordinazioa bermatzeko eta programaren jarraipena egiteko osatuko da bitariko batzordea. Bertan programaren koordinatzaile moduan jardungo duen langilea egongo da enpresa esleipendunaren izenean.

Gutxienez, hiru bilera egingo ditu ikasturtean zehar (irailetik ekainera) programaren inguruko informazioa elkarri emateko eta gerta daitezkeen gorabeherak aztertzeko.

Egunerokotasunean, telefono eta posta elektroniko bidezko harremana izango da. Euskarako Zuzendaritzak harremanetarako erabiliko duen hizkuntza euskara izango da.

Modu honetara egingo da programaren jarraipena:

- ✓ Programa martxan jartzen den unean, eta ikasturte bakoitzaren hasieran (urrian), aisialdi agendaren proposamena egingo da ikasturte osorako (ekainera bitartekoa), lortu asmo diren helburuekin batera, Euskarako Zuzendaritzak oniritzia eman dezan.
- ✓ Hilabetez hilabete, nahiko aurretiaz aurkeztuko da hurrengo hilabetean egingo diren jardueren programa, Euskarako Zuzendaritzak oniritzia eman dezan.
- ✓ Hilabetea amaitu eta hurrengo astean, ekintza bakoitzeko parte-hartzaileen taula bidaliko dira Euskarako Zuzendaritzara, datu hauek bilduta: jardueraren izena, jarduera mota, barrutia, eguna, ordua, nork antolatua eta parte-hartzaile kopurua (andrazkoak, gizonezkoak eta genero bitarretakoak ez direnak).
- ✓ Ikasturte bukaeran (ekaina bukatu ostean), programaren amaierako memoria aurkeztuko da, egindako ekintzen laburpenarekin eta egokia den dokumentazio osagarriarekin. Bertan laburbilduta egongo da balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa (partaide-kopurua, garatutako jarduerak, gorabeherak, asebetetze-inkesten emaitzak eta gainerako alderdi aipagarriak).
- ✓ Programaren jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa (txostenak, balantzeak eta asebetetze-inkestak) aurkeztu beharko dio esleipendunak Euskarako Zuzendaritzari.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

5.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

a) HIZKUNTZEN ERABILERA: Euskarako Zuzendaritzak harremanetarako erabiliko duen hizkuntza euskara izango da. Euskarrietan erabiliko diren testuak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, Euskara Zuzendaritzak eman beharko ditu ontzat. Hizkuntzen kalitatea zaindu egingo da. Testuak zuzen idatzita egon beharko dira, eta erregistro egokia erabiliko da.

b) OROKORRAK: Enpresa esleipendunaren kontura izango dira kontratatutako zerbitzua emateko egin behar diren gastu guztiak: kontratua prestatu eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, tresnak, lan-eskua, Gizarte Segurantza, tributazioa, mota guztietako erantzukizunak eta aseguruak, enpresari dagozkion gainerako kargak eta betebeharrak, eta kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik sortzen diren beste guztiak. Betebehar horiek guztiak bere gain hartzen ditu, behin betiko esleipena egiten zaion unetik aurrera.
Enpresa esleipendunak lortu behar ditu, bere kontura, prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, ofizialak nahiz partikularrak.
Enpresa esleipendunak lortu behar ditu, bere kontura, bere eskaintzan aipatzen dituen kalitate-ziurtagiriak eta gainerako egiaztagiriak.
Modu berean, bera izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua egikaritzean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta Bilboko Udalari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.
Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa esleipendunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar.

c) ANTOLAKETA: enpresa esleipendunak kontratuaren esku jarriko ditu kontratua behar bezala egikaritzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak.

d) GIZA BALIABIDEAK: Enpresa esleipendunak behar beste langile eduki behar ditu, kualifikazio nahikoarekin, kontratu hau betetzeko egin behar diren betekizunak egiteko. Enpresa esleipendunak zehaztuko ditu, aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, berak bakarrik, bere langileen premiak.
Bilboko Udalak ez du erantzukizun zuzeneko, solidario ez subsidiariorik izango enpresa esleipendunaren lan arloko betebeharrak betetzeari buruz, ezta kontratu

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

honen ondorioz sortzen direnei buruz ere, ezta ere lan-harremanak azkentzean sortzen diren betebeharrei buruz ere (ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua azkendu ondoren). Enpresa esleipendunak hartuko ditu bere gain horietatik eratorritako ondorioak, lan arlokoak nahiz juridikoak, nahiz kontratuak indarrean dirauen artean, nahiz behin amaitutakoan.

Enpresa esleipendunak enplegatzen dituen pertsonak gizarte-segurantzaren sisteman sartuta egongo dira, eta alta emanda, alderdien artean indarrean den kontratu-modalitateari dagokion Gizarte Segurantzaren Araubidean, lan-harremanak irauten duen artean.

Bilboko Udalak ez du izango antolaketako ez zuzendaritzako ahalmenik esleipendun enpresari zerbitzua ematen dieten langileei dagokienez, eta ez du izango inolako harreman juridikorik, lan arlokorik, zibilik edo administraziokorik haiekin.

e) ARDURADUNA: Enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatu beharko du, eta kontratua egikaritzeko epe osoan zehar prest egon beharko du kontratua egikaritzean sortzen diren gorabeherak konpontzeko.

f) UDALAREN IRUDIA: Zerbitzua eman bitartean sortzen edo egiten diren agirietan, jardueretan edo ekintzetan argi eta garbi agerrarazi beharko da udalaren titulartasuna, Bilboko Udalaren logotipoa txertatuta (idazkietan, txostenetan, aurkezpen txarteletan, eta abar).

g) KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA: Bilboko Udalak beretzako erreserbatzen ditu, esklusibotasunez eta epe mugagabe baterako, kontratua egikarituz garatutako sorkuntzari dagozkion erreprodukzioko, banaketako, komunikazio publikoko eta eraldaketako eskubideak. Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da hirugarren batzuek kontratuaren objektua dela-eta aurkeztutako erreklamazio, demanda, eta auziko uzi guztiei erantzuteko, eta berak hartuko ditu bere gain, eta erantzukizun orotatik kanpo utziko du hartara Bilboko Udala.

h) LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA: Nolanahi ere, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean den legeriari dagozkion betebehar guztiak bete beharko dira, behar bezala aplikatuz araudia, hitzarmen honen ondorioz gauzatzen den jarduerari dagozkion lan-arriskuen prebentziorako indarrean dagoena, eta hartarako ezarritako legezko tresnak baliatuz; hala, enpresa

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

esleipendunarena ez beste inorena izango da betebehar horiek betetzeko erantzukizuna, eta, beraz, horiek ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak ekartzen dituen ondorioen erantzukizuna ere bai.

i) KONFIDENTZIALTASUNA: Kontratu honekin egindako lan guztia eta halaber lan horien bidez eskuratzen den informazio guztia konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezingo du erabili inolako informaziorik, ez hirugarren batzuei eskuratu, Udalaren idatzizko baimenik gabe.
Kontratatuaren obligazioa izango da behar diren eta eskura dituen baliabide guztiak jartzea, jagondako dokumentazioko datuen konfidentzialtasunaren inguruko legedia betetzeko.

j) HIZKERA INKLUSIBOA: Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabiliko du bere komunikazioetan, udaleko Berdintasun Sailak ildo horretan ezarritako irizpideei jarraituz.

k) LARRIALDIAK: Enpresaren larrialdiengatik edo antzeko arrazoiengatik enpresa esleipendunak uste badu ezin duela zerbitzua egin ezarrita dauden betekizunak betez, Bilboko Udalari jakinarazi beharko dio berehala, neurri egokiak har ditzan, eragindako eragozpenak saihesteko edo murrizteko. Neurri horiek sortzen dituzten gastuak esleipendun enpresak ordainduko ditu, hargatik eragotzi gabe dagozkion zehapenak eta deskontuak.
Kasu horietakoren batean esleipendun enpresak neurri egokiak hartzen baldin baditu kalteak konpentsatzeko, zehapena ez da bidezkoa izango, eta egin gabeko lanen zenbatekoa baino ez da deskontatuko.

l) BESTE OBLIGAZIO BATZUK: Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa esleipendunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar. Era berean, Administrazioak bere esku izango du lehen deskribatutakoen antzeko beste produktu batzuk egin ditzan errekeritzea, esleipendunari kostu gehigarririk eragin gabe.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

2. LOTEA: ***Mintzapraktika-taldeak***

1.- XEDEA

Kontratu honen xedea da Bilbon euskara praktikatzeko mintzapraktika-taldeak antolatzea, talde-dinamika informalaren bidez.

Programa honen bidez mintzapraktika-taldeak sortuko dira eta enpresa esleipendunak mintzapraktika-taldeak koordinatu, kudeatu eta dinamizatzeko beharrezkoa den zerbitzua emango du.

Jarduera mota honekin, euskara praktikatzeko espazio seguruak edo babesguneak sortzea da helburua, hizkuntza-konfiantza eta ahozko jariotasuna indartuz, eta aldi berean, harreman-sare berriak sortzeko bidea emanez.

2.- ZEREGINAK

Hauek izango dira enpresa esleipendunaren lan ildoak eta eginkizunak:

- Mintzapraktika-taldeak: programa honen bitartez euskara 16 urtetik gorako bilbotarren artean praktikan jartzeko taldeak osatu eta kudeatuko dira.
- Mintzapraktika-taldeak aurrez aurrekoak izango dira, baina kasu berezietan online formatukoak ere antola daitezke.
- Gutxienez 55 talde osatuko dira ikasturte bakoitzeko, irailaren erditik ekainaren amaiera arte.
- Talde horiek gutxienez astean behin bildu eta guztira gutxienez ordu eta erdiko 35 saio egingo dituzte.
- Programaren web ataria eta sare sozialak sortzea eta kudeatzea:
  - ✓ Web atariak mintzapraktika taldeei buruzko informazioa jasoko du modu argi eta erakargarrian.
  - ✓ Web atarian, modu argian eta ondo ikusteko eran agertuko da Bilboko Udalaren logoa. Euskarako Zuzendaritzak bere gain hartuko du, behar bezala justifikatuta, bertan beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko ahalmena.
  - ✓ Web atariaren bidez kudeatuko da mintzapraktika-taldeetan parte hartu nahi duten herritarren izen-ematea.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

- ✓ Web atarian iradokizunen buzoi bat sortzea, herritarren ekarpenak jaso ahal izateko.
- ✓ Sare sozialak sortu eta kudeatuko dira.

- Programa kudeatzeko telefono zenbaki bat eta helbide elektroniko bat eskuragarri izatea.
- Izen-emateak kudeatzea: herritarrek online formulario baten bidez emango dute izena mintzapraktika-taldeetan. Online formularioa programaren web atarian txertatuta egongo da.
- Programaren marka berritzea:
  - ✓ Programaren markan izena (“Mintzapraktika”) agertuko da.
  - ✓ Programaren logoa berrituko da, logo bakarra sortuko da eta euskarri guztietan txertatuko da, Udalaren logoarekin batera.
- Marketina, publizitatea eta komunikazioa:
  - ✓ Interesa duen edonorentzat eta parte-hartzaileentzat programaren gaineko informazioa prestatzea.
  - ✓ Programan izena emateko Interneten sortutako euskarriko eta sare sozialetako informazioa eguneratzea.
  - ✓ Jarraiko informazio-kanpaina egitea hiri osoko euskaltegietan; zabalkunde-kanpaina ere egitea programan parte hartu nahi dutenek izena eman dezaten.
- Dinamizatzaileentzako baliabide bankua sortzea: bertan mintzapraktika-egitasmoetan dinamizatzaileek behar izango dituzten material eta azalpen guztiak bilduta egongo dira.
- Udalaren zehar lerroak kontuan hartzea programa diseinatu eta antolatzerakoan: genero-berdintasuna, irisgarritasuna, osasuna eta jasangarritasuna, besteak beste.
- Ekainean, ikasturteko parte-hartzaileei asebetetze-inkestak bidaltzea, Udalarekin adostutako edukiarekin, eta asebetetze-inkesten datuak aztertzea.

3.- TALDEAK

Mintzapraktika-taldeak, gutxienez, 4 pertsonarekin osatuko dira. Talde bakoitzean parte-hartzaile mota bi egongo dira: euskaraz ondo dakitenak eta euskarako ikasleak edo euskara hobetu nahi dutenak.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Modu horretara, parte-hartzaileen artean, batzuek (euskaraz ondo dakitenek) “dinamizatzaile” rola hartuko dute, eta beste batzuek (euskarako ikasleek edo euskara hobetu nahi dutenek) “mintzakide” rola hartuko dute.

“Dinamizatzaileek” elkarrizketa-gaiak proposatuko dituzte, eta elkarrizketak dinamikoak izaten ahaleginduko dira. “Mintzakideek” proposatutako gaiei buruzko elkarrizketetan ahalik eta modu aktiboenean parte hartzen ahaleginduko dira.

Beraz, programan izena ematen duten guztiek rol bat edo bestea hartuko dute. Programan izena ematea eta parte-hartzea doakoa izango da herritarrentzat, eta herritarrek rol bat edo bestea hartzeak ez du ondorio ekonomikorik ekarriko enpresa adjudikatzailearentzat.

Parte-hartzaileak 16 urtetik gorakoak izango dira eta taldean parte hartzeko besteko euskara-maila eduki behar dute. Herritarrek, izena ematearekin batera, proiektuaren koordinatzailearekin elkarrizketa labur bat izango dute, gutxieneko maila dutela baieztatzeko.

Mintzapraktika taldeak osatzean, auzoa, adina, zaletasunak eta aukerak kontuan hartuko dira, eta taldekideen artean generoen arteko parekidetasuna zainduko da. Era berean, enpresa esleipendunak saiakera egingo du Bilboko auzo guztietan, gutxienez, mintzapraktika talde bat osatzeko. Horrez gain, enpresa esleipendunak xede taldeak ere osatuko ditu, adin, zaletasun eta interes komuneko gaien arabera.

4.- KONTRATUA EGIKARITZEKO IZENDATUTAKO LAN-TALDEA

Enpresa esleipendunak lantaldea izendatu beharko du kontratua egikaritzeko, eta honako profil profesionala izan beharko du:

PROFIL PROFESIONALEN TAULA			
Kontratuan duen erantzukizuna (eginkizunak)	**Eskatzen diren titulazioa / ikasketak**	**Eskatzen den gutxieneko esperientzia**	**Hizkuntzak**
Koordinatzailea	MECESeko 1. maila	urte 1 euskararen alorreko egitasmoetan irakasle, dinamizatzaile edo antolatzaile	Euskarako C1 maila

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Baldintza horiek betetzen direla eskaintzak baloratu aurretik egiaztatuko da.

Kontratua gauzatzeko izendatutako lantaldeak bere horretan iraun beharko du kontratuak irauten duen artean:

- Eskaintzan zehaztutako balioen arabera eskainitako langilearen ezagutza teknikoen maila eta lanak gauzatzean erakutsitako ezagutza errealak bat ez badatoz, zuzentzeko neurriak hartzeko eskatuko zaio esleipendunari.
- Arduradunaren lanen produktibitatearen eta kalitatearen balorazioa desegokitzat jotzen bada, edo zerbitzua behar bezala gauzatzearekin lotutako gorabeherarik gertatzen bada, esleipendunari jakinaraziko zaio, zuzentzeko neurriak har ditzan.
- Enpresa esleipendunak eskaintzan izendatutako arduraduna aldatzea proposatzen badu, idatziz jakinaraziko du 15 egun lehenago, egindako aldaketak azalduz eta ordezkapenerako atxikiko dituen profil baliokideko datuak erantsiz.

Kontratistak kontratua gauzatzeko jarritako giza baliabideak esleipendunaren zuzendaritzaren eta antolaketaren mende egongo dira, legez ezarritako esparru eta ordena orotan; beraz, esleipenduna izango da langile horren arduradun bakarra, eta, beraz, ez dute izango inolako lotura juridiko-laboralik Bilboko Udalarekin. Hori guztia dagokion kontratuaren betearazpenaren kontrola alde batera utzita.

Klausula horretan aurreikusitakoa eta eskaintzan giza taldeari buruz jasotako konpromisoak betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, kontratistak betetzen ez baditu, kontratua suntsiarazi ahal izango da.

5.- BITARIKO BATZORDEA: PROGRAMAREN JARRAIPENA

Enpresa esleipendunaren eta Euskarako Zuzendaritzaren arteko ezinbesteko koordinazioa bermatzeko eta programaren jarraipena egiteko osatuko da bitariko batzordea. Bertan programaren koordinatzaile moduan jardungo duen langilea egongo da enpresa esleipendunaren izenean.

Gutxienez, hiru bilera egingo ditu ikasturtean zehar (irailetik ekainera) programaren inguruko informazioa elkarri emateko eta gerta daitezkeen gorabeherak aztertzeko.

Egunerokotasunean, telefono eta posta elektroniko bidezko harremana izango da. Euskarako Zuzendaritzak harremanetarako erabiliko duen hizkuntza euskara izango da.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Modu honetara egingo da programaren jarraipena:

- ✓ Ikasturte bakoitzaren hasieran, abiatu diren talde-kopuruaren berri ematea.
- ✓ Programaren urte amaierako memoria aurkeztea, sortutako taldeen inguruko informazioarekin (auzokako talde kopurua eta batzeko tokiak), egindako ekintzen azalpenarekin eta egokia den dokumentazio osagarriarekin. Bertan laburbilduta egongo da balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa (partaide-kopurua, garatutako jarduerak, gorabeherak eta gainerako alderdi aipagarriak).
- ✓ Programaren jarraipena egiteko beharrezkoa den informazioa (txostenak, balantzeak eta asebetetze-inkestak) aurkeztu beharko dio esleipendunak Euskarako Zuzendaritzari.

6.- ENPRESA ESLEIPENDUNAREN FUNTSEZKO BETEBEHARRAK

a) HIZKUNTZEN ERABILERA: Euskarako Zuzendaritzak harremanetarako erabiliko duen hizkuntza euskara izango da. Euskarrietan erabiliko diren testuak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, Euskara Zuzendaritzak eman beharko ditu ontzat. Hizkuntzen kalitatea zaindu egingo da. Testuak zuzen idatzita egon beharko dira, eta erregistro egokia erabiliko da.

b) OROKORRAK: Enpresa esleipendunaren kontura izango dira kontratatutako zerbitzua emateko egin behar diren gastu guztiak: kontratua prestatu eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, tresnak, lan-eskua, Gizarte Segurantza, tributazioa, mota guztietako erantzukizunak eta aseguruak, enpresari dagozkion gainerako kargak eta betebeharrak, eta kontratutik edo lizitazioan parte hartzetik sortzen diren beste guztiak. Betebehar horiek guztiak bere gain hartzen ditu, behin betiko esleipena egiten zaion unetik aurrera.

Enpresa esleipendunak lortu behar ditu, bere kontura, prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, ofizialak nahiz partikularrak.

Enpresa esleipendunak lortu behar ditu, bere kontura, bere eskaintzan aipatzen dituen kalitate-ziurtagiriak eta gainerako egiaztagiriak.

Modu berean, bera izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua egikaritzean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla-eta Bilboko Udalari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa esleipendunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar.

c) ANTOLAKETA: enpresa esleipendunak kontratuaren esku jarriko ditu kontratua behar bezala egikaritzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak.

d) GIZA BALIABIDEAK: Enpresa esleipendunak behar beste langile eduki behar ditu, kualifikazio nahikoarekin, kontratu hau betetzeko egin behar diren betekizunak egiteko. Enpresa esleipendunak zehaztuko ditu, aurreko paragrafoan adierazitakoa gorabehera, berak bakarrik, bere langileen premiak.
Bilboko Udalak ez du erantzukizun zuzeneko, solidario ez subsidiariorik izango enpresa esleipendunaren lan arloko betebeharrak betetzeari buruz, ezta kontratu honen ondorioz sortzen direnei buruz ere, ezta ere lan-harremanak azkentzean sortzen diren betebeharrei buruz ere (ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua azkendu ondoren). Enpresa esleipendunak hartuko ditu bere gain horietatik eratorritako ondorioak, lan arlokoak nahiz juridikoak, nahiz kontratuak indarrean dirauen artean, nahiz behin amaitutakoan.
Enpresa esleipendunak enplegatzen dituen pertsonak gizarte-segurantzaren sisteman sartuta egongo dira, eta alta emanda, alderdien artean indarrean den kontratu-modalitateari dagokion Gizarte Segurantzaren Araubidean, lan-harremanak irauten duen artean.
Bilboko Udalak ez du izango antolaketako ez zuzendaritzako ahalmenik esleipendun enpresari zerbitzua ematen dieten langileei dagokienez, eta ez du izango inolako harreman juridikorik, lan arlokorik, zibilik edo administraziokorik haiekin.

e) ARDURADUNA: Enpresa esleipendunak koordinatzaile bat izendatu beharko du, eta kontratua egikaritzeko epe osoan zehar prest egon beharko du kontratua egikaritzean sortzen diren gorabeherak konpontzeko.

f) UDALAREN IRUDIA: Zerbitzua eman bitartean sortzen edo egiten diren agirietan, jardueretan edo ekintzetan argi eta garbi agerrarazi beharko da udalaren titulartasuna, Bilboko Udalaren logotipoa txertatuta (idazkietan, txostenetan, aurkezpen txarteletan, eta abar).

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

g) KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA: Bilboko Udalak beretzako erreserbatzen ditu, esklusibotasunez eta epe mugagabe baterako, kontratua egikarituz garatutako sorkuntzari dagozkion erreprodukzioko, banaketako, komunikazio publikoko eta eraldaketako eskubideak. Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da hirugarren batzuek kontratuaren objektua dela-eta aurkeztutako erreklamazio, demanda, eta auziko uzi guztiei erantzuteko, eta berak hartuko ditu bere gain, eta erantzukizun orotatik kanpo utziko du hartara Bilboko Udala.

h) LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA: Nolanahi ere, lan-arriskuen prebentzioaren arloan indarrean den legeriari dagozkion betebehar guztiak bete beharko dira, behar bezala aplikatuz araudia, hitzarmen honen ondorioz gauzatzen den jarduerari dagozkion lan-arriskuen prebentziorako indarrean dagoena, eta hartarako ezarritako legezko tresnak baliatuz; hala, enpresa esleipendunarena ez beste inorena izango da betebehar horiek betetzeko erantzukizuna, eta, beraz, horiek ez betetzeak edo behar bezala ez betetzeak ekartzen dituen ondorioen erantzukizuna ere bai.

i) KONFIDENTZIALTASUNA: Kontratu honekin egindako lan guztia eta halaber lan horien bidez eskuratzen den informazio guztia konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezingo du erabili inolako informaziorik, ez hirugarren batzuei eskuratu, Udalaren idatzizko baimenik gabe.
Kontratatuaren obligazioa izango da behar diren eta eskura dituen baliabide guztiak jartzea, jagondako dokumentazioko datuen konfidentzialtasunaren inguruko legedia betetzeko.

j) HIZKERA INKLUSIBOA: Enpresa esleipendunak hizkera ez-sexista erabiliko du bere komunikazioetan, udaleko Berdintasun Sailak ildo horretan ezarritako irizpideei jarraituz.

k) LARRIALDIAK: Enpresaren larrialdiengatik edo antzeko arrazoiengatik enpresa esleipendunak uste badu ezin duela zerbitzua egin ezarrita dauden betekizunak betez, Bilboko Udalari jakinarazi beharko dio berehala, neurri egokiak har ditzan, eragindako eragozpenak saihesteko edo murrizteko. Neurri horiek sortzen dituzten gastuak esleipendun enpresak ordainduko ditu, hargatik eragotzi gabe dagozkion zehapenak eta deskontuak.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Kasu horietakoren batean esleipendun enpresak neurri egokiak hartzen baldin baditu kalteak konpentsatzeko, zehapena ez da bidezkoa izango, eta egin gabeko lanen zenbatekoa baino ez da deskontatuko.

l) BESTE OBLIGAZIO BATZUK: Kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak ere emango ditu enpresa esleipendunak, ordainketa gehigarrirako eskubiderik gabe; esaterako, laneko bileretara eta bilera informatiboetara joatea eta abar. Era berean, Administrazioak bere esku izango du lehen deskribatutakoen antzeko beste produktu batzuk egin ditzan errekeritzea, esleipendunari kostu gehigarririk eragin gabe.

Egiaztatzeko Urla	https://www.bilbao.eus/aytoonline/verificacion-documentos?csv=QUCc33crUeuVp5VJfPjzrQ%3D%3D	Egoera	EGUN-ORDUAK
Nork Sinatua	Zuzendaria Director/a - Maria Jose Arrieta Sagarna	Sinatua	27/10/2025 09:06:36
	Goi Mailako Teknikaria Técnico Superior - David Rosales Reguera	Sinatua	27/10/2025 08:15:24
	Arduradun Juridikoa / Responsable Jurídico - Miren Iratxe Enderika del Villar	Sinatua	27/10/2025 08:05:54
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		